



ZESTOAKO UDALA

AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko irailaren 29an buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako udaletxean, bi mila eta hogeiko uztailaren hogeita zortzian, Mikel Arregi Urrutia Alkate jauna mahaiburu delarik, Ruben Alberdi Uranga, Nerea Odriozola Larrañaga eta Garikoitz Mendizabal Etxeberria korporakideak bildu dira.

Idazkari lanetan, Ander Cestona Unanue jauna, Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea aritzen da.

1.- INSTANTZIAK. -

1.1) A.A.I.k, idatzi bat aurkezten du, non Txindurri erreka inguruan egin diren lan batzuen inguruan ardura adierazten duten.

Zestoako Udalaren aldetik hitzordu bat zehazteko deituko zaio eskaera egileari.

1.2) A.A.k, B.A. enpresak sortzen duen kiratsaren inguruko kexatzen aurkezten du.

Emisioen kontrol txostenaren data jakinaraziko zaie eta kexa Eusko Jaurlaritzara bidaliko da.

1.3) M.G.I.k, uxoei sortutako zikinkeria garbitzeko eta lurrak birgaitzeko eskaera egiten du.

Jakinaraziko zaio Udalak usoak kontrolatzeko neurriak abuztutik martxan jarriak dituela.

1.4) M.A.A.I.k, Portale kalea 6an, orain leihoa dagoen lekuan atea jartzeko obretako udal baimena eskatzen du.

Portale kalea 6 beheko lokaleko leihoa kendu eta atea jartzeko obretako udal baimena ematen da.

1.5) O.S.C.k, Sansinenea poligonoko 5A-5B partzelan duen nabean, zenbait obra txiki egiteko udal baimena eskatzen du: kamioiek karga-deskarga egiteko zolaren egokitzapena eta elaboratuak egiteko gelaren handitzea.

Sansinenea poligonoko 5A-5B partzelan duen nabean kamioiek karga-deskarga egiteko zola egokitzeko eta elaboratuak egiteko gela handitzeko obretako udal baimena ematen da.

1.6) Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, Arroa Behean 2019ko azaroaren 21etik 2020ko urtarrilaren 15era bitartean jarri zuten airearen kalitatea neurtzeko emaitzen txostena aurkezten du.

Txostenaren berri eman da.

1.7) U.U.A.k, udalerrian hondakin-urak Saneamendu Sarera konektatuta ez dituzten enpresen zerrenda eskatzen du.

Udalerrian hondakin-urak Saneamendu Sarera konektatuta ez dituzten enpresen zerrenda igorriko da.

1.8) J.L.E.A.k, Arroa Beheko Artzubia aldea ibardiaren berreskurapen eta hobetze lanen inguruko kamioi erregistroa aurkezten du, 2020ko uztailleko eta abuztuko hilabeteei dagokiona.

Arroa Beheko Artzubia aldeko ibarbidearen berreskuratze eta hobetze lanen 2020ko uztailleko eta abuztuko hilabeteei dagokion kamioi erregistroa jaso izanaren adierazpena egiten da.

1.9) J.J.O.O.k, Akuako Txapei baserriko fatxadan zaharberritze lanak egiteko eta teilatua berritzeko obretako udal baimena eskatzen du.

Obra baimena eman aurretik, aurrekontuan aurreikusten den leiho berriaren xehetasunak aurkeztu beharko ditu Udalean.

1.10) J.J.I.M.k, Sorabil-berri baserriko teiltuaren konponketako hondakinen ziurtagiria aurkezten du. Ontzat ematen da.

1.11) J.A.I.M.k, Zestoako 5. poligonoko 15. partzelan, sarrera bide bat egiteko baimena eskatzen du.

Eskatutako partzelara sartzeko bidea egitea baimengarria da, baimena eman ahal izateko, lanen aurrekontua aurkeztu beharko da Udalean.

1.12) C.I.k, C.A.B.ren izenean, Lasao auzoa 9ko Aletegi etxea eraikinean igogailua jartzeko obra baimen eskaera egiten du.

Baimena ematen da Lasao kalea 9ko Aletegi etxea eraikinean igogailua jartzeko obrak egiteko.

1.13) N.L.H.k, Narrondoko Larrazabalbekoa baserriaren hirugarren etxebizitzak bizigarritasun baimena noiz izango duen galdetzen du.

Zestoako Udala Hirigintza Antolamenduaren Plan Orokorra ari da lantzen. Gai hau bertan landuko da.

1.14) K.M.U.Z.k, udal brigadako langileak desbrozadorearekin puskatutako bere kotxearen ezkerreko pilotua konpontzea eskatzen du.

Zestoako Udalak ordainduko du bere kotxeko ezkerreko pilotuaren konponketa.

1.15) M.J.I.k eta A.S.I.k (idatziarekin beste herritar batzuk ere bat egin dute), Zestoa Herri Ikastetxeko eta Iraetako futbol zelaia herritarrentzako irekitzea eskatzen dute.

Udalari aurkeztutako proposamena egokia iruditu zaio eta eskatzaileekin bilera bat egingo da zaintza antolatzeko.

1.16) Lurperatze ordutegia finkatzea.

Udal brigadako baliabideak egoki kudeatzeko ohiko lurperatze ordua eguerdiko 12:00etan finkatu da. Ordu desberdin bat eskatu edo proposatuko balitz, kasu bakoitzean aztertuko da.

1.17) I.B.E.k, Aizarnako Urrutikoetxea baserriaren lehen erabilera baimena eskatu eta eskriturak aurkezten ditu.

Tokiko Gobernu Batzarrak, txosten teknikoa eta Hirigintza eta Pertsonaleko Batzordearen irizpena aztertu ondoren, erabaki du:

Aurkezturiko eskrituren zirriborroa bat dator baimendutako proiektuarekin, beraz, udal teknikariek ikuskaritza bat egingo dute ontzat eman aurretik.

2.- PERTSONALEKO GAIAK.

2.1) M.L.k, dagozkion opor egunak hartzeko, Udalaren proposamena eskatzen du.

Udalak Lanbideren dirulaguntzen baitan, administrari bat kontratatuko du. Aipatutako administraria lanean hasten denean, dagokion udal arduraduna eskatzailearekin bilduko da, hartzeko dituen egun horien egutegia finkatzeko.

2.2) M.A. garbitzailearen kontratua jornada osora aldatzeko proposamena.

Covid-19ak sorrarazi dituen garbiketa gehigarrien behar berriei aurre egiteko, eskolan eta gaztelekuan beharrezkoa ikusten da proposaturiko aldaketa egitea. Horrela ontzat ematen da M.A.ren kontratua jornada osora aldatzea.

2.3) A.A.k, Udaleko ELAko ordezkari bezala, udal honetako eta bere erakunde autonomoetako eta sozietate publikoetako guraso langileentzako edota zaugarri eta adineko pertsonen ardura duten langileentzako baimen ordaindu berezi bat ezartzea eskatzen du.

Udalak ez du egoki ikusten eskatzen den baimen berezia eta ordaindua, eta horrez gain, Udalak ezin du bere gain hartu.

3.- AZKEN ORDUKO GAIAK.

3.1) Pinudiak ateratzen ari direla eta Akuatik Aizarnara doan Galtzadaren egoera.

I.L. ingurumeneko teknikariak berri eman du, gaurko egunez bertaratu eta bidea baso hondakinekin eta enborrekin itxita dagoela ikusi duela. Horrekin batera, aipatu du Zubeltzuko eremuan, enborrak pilatuta dizuten parean, errepidea lokatzez egoera txarrean dagoela.

Galtzadan ikusi ahal izan da, jada zati batzuetan, bertan ibilitako makinen ondorioz bide eusten duten harri batzuk azpi aldera jauzi direla. Beraz, Galtzadan kamioiak ibiltzea arriskutsua ikusten da.

3.2) A. enpresak obrak hasi ditu. Baimena izan arren, baimenean ezarritako baldintza batzuk ez ditu bete eta lanak geldiarazi egin zaizkio.

Berri eman da, 2020ko irailaren 25eko Alkatearen ebazpen bidez, lanak geldiarazi egin direla, baimeneko baldintza batzuk ez dituelako bete.

3.3) Alberdin pareko lurrak.

G.k adierazi du, aurreko batzorde batean aztertu zela Alberdin parean dauden lurrak kentzeko eskaera.

Batzordeburuak egoki ikusi du, koordinatzailearekin antolatuko du gaia.

4.- BATZORDEETAKO AKTAK.

Ez dago aktarik.

5.- ALKATEAREN EBAZPENAK.

Hurrengo batzordean pasako dira.

6.- ELKARRERANTZUN OFIZIALAK.

Ez dago elkarrerantzun ofizialik.

7.- ERREGU ETA GALDERAK.

Ez dago erregu edo galderarik.

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa eguerdiko 14:20ak direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

Ander Cestona Unanue
Idazkaria,

O.e
Alkateak,